

6

JESUS ETA BERE GURASOAK

1

Jesusen gurasoak
betiko antzera,
Jesus ta guzti doaz
Jerusalenera,
Jainkoaren Legea
fedez betetzera
pozik ospatzen eben
urteko aukera.

2

Eginbeharrak egin
eskari ta esker,
etxerako bidea
hartu eben laster.
Gurasoak ez eben
somau txarrik ezer,
Jesusek hori egin...
Ez bazan hain oker!

3

Hiru bat eguneko
bidea eginda,
Jesus falta jakela
sinistu ezinda.
Danak tristetu ziran
barri hau jakinda;
"Nor eta Jesus galdu...
Ez, hori ezin da"!

4

Eleizara joanda
erregu isila:
"Arren, Jauna, semea
agertu dedila"
Baztarrak arakatu
semearen bila,
eta maixu-artean
horra non mutila!

5

"Ene seme, zergaitik
hau egin deuskuzu?
Aita ta biok bila
ibili gaituzu".
-"Ez al zenkian, ama,
biok ni eta zu
Aitak behar gaitula
berean jo ta su?"

6

Jesusen erantzuna
ulertu-ezina,
ta amaren bihotzak
hausnartzeko aina.
Etxera joanda, horra
harotz-mutil fina,
hogeita hamar urtetan
seme esangina.